



Bulego Turistikoetan hazkunde handia 2016ko Aste Santuan

Donostian, 2016ko martxoaren 29an

Donostia Turismo & Convention Bureauak hiru informazio puntuen artean %73 bisita gehiagori arreta eman die. Produktu turistikoen salmentak ere %51,29an gora egin du batez beste (bisita gidatuak, tren eta bus turistikorako txartelak, SSSCard eta BasqueCard txartelak etab.)

Aste Santuan (martxoaren 19tik, larunbata, astelehena 28ra arte), **%73 bisita unitate gehiagori arreta** eman zaie Informazio Puntu Turistikoetan (2016an 6711 bisita-unitate, 2015eko 3636en aldean). Kontuan izaten badugu, normalean bisita-unitate bakoitzeko hainbat pertsona datozela, **atenditutako bisitarien kopurua 16.095ekoa izan da** (10.077 2015ean). Igoera hirian bi informazio puntu berrien ondorioa da hein batean. Hots, 5811 pertsoneri arreta eman zaie Donostia Turismoko Bulego Nagusian, 5401 pertsonari DSS2016EU Puntuan, 3589ri planoen displayen bitartez eta 1292ri Donostiako Autobus Geltokiko Bulegoan.

Aste Santua Estatuko oporrak dira; horregatik, atenditutako pertsona gehienak beste erkidegotako turistak izan dira (%60). Batez ere, Katalunia eta Madriletik etorri dira, eta ondoren, hurrenez hurren, Balentzia, Gaztela Leon, Galizia, Andaluzia eta Aragoiko turistek bisitatu gaituzte gehien. Bestalde, Donostiako turismoaren nazioartekotzearen eraginez, turisten %22 atzerritik etorri dira, batez ere Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Argentina, EEBB eta Australia.



NAZIOARTEKO SAILKAPENA
Frantzia (8,35%)
Alemania (2,14%)
Erresuma Batua (1,54%)
Argentina (1.40%)
EEBB (0,96%)
Australia (0,96%)

ESTATUKO SAILKAPENA
Katalunia (16,37%)
Madrid (15,62%)
Balentzia E. (4,65%)
Gaztela- Leon (4,58%)
Galizia (3,85%)
Andaluzia (2,93%)

Produktu turistikoen salmenta

Produktu turistikoen eskaintzak eta salmentak, halaber, nabarmen egin du gora. Autobus eta tren turistikoaren salmenta %31,72 igo da, eta saldutako txartel turistikoek (SSCard eta BasqueCard, hiriaren barruan eta inguruan garraioa errazteaz gain, museo eta saltokietan deskontuak eskaintzen dituzten txartelak), %60 egin dute gora.

Bisita gidatuei dagokienez, Donostia Turismo & Convention Bureauk eskaintza indartu du, egunero bisita gidatuak eskainiz. “Oinarrizkoa” eta “Erromantikoa” deituriko bisitak egunero bete dira, eta bisita gidatuek, guztira, %62,68 egin dute gora.

Donostiara iristen diren turistek erabilitako garraioen tipologia

Hurrengo datuak Donostiako Turismo Bulego nagusiak jasotako datuak dira soilik:



OINEZ	4,12%
AUTOKARABANA	2,41%
HEGAZKINA BIA	0,64%
HEGAZKINA BIO	2,84%
HEGAZKINA EAS	2,80%
AUTOBUSA	12,45%
AUTOA	68,12%
BESTEAK	1,84%
TRENA	4,79%

Donostiara iristeko gehien erabili den garraiobidea autoa izan da, eta ondoren, hurrenez hurren, autobusa, hegazkina eta trena. Santiago Bidearen eragina nabarmena da, oinez etortzen diren bisitariak kontuan hartuz. Ehunekoak aurreko urteetan ere antzekoak izan dira.

Donostiako Turismo Buelgoetan Kalitate Zerbitzua

Bisitariari kalitatezko zerbitzua eskaintzea da Donostia Turismo & Convention Bureauko Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bat. Zentzu horretan, bisitarien kopuru altua hurbilduko zela aurreikusiz, turistaren arretarako pertsonala handitu egin da, 6tik 18 pertsonara pasaz. Donostiak astelehenetik (martxoak 21) bisitariari arretarako 3 bulego dauzka: Alderdi Ederren kokatutako DSS2016EUko arreta puntua, Autobús Geltokiko Infopointa eta Boulevard-eko Bulego zentrala.

Gainera, joan den urtetik, Donostia Turismok doako Wi-fi zerbitzua eskaintzen du, ordu erdiz, Boulevard-eko ofizinara hubiltzen diren bisitari guztientzat. Zerbitzua oso erabilia izan da egun hauetan.